



AHOLKULARITZA SAIOEN NONDIK NORAKOA ETA AURKEZTUTAKO HAINBAT LIBURUREN IRUZKINAK (2016-2017)

Liburuen Altxorra/ Liburu Ibiltariak egitasmoaren baitan, irakasleentzako aholkularitza saioak eskaintzen ditugu hainbat eskoletan. Saio horietan, urtero, argitaratu berri diren liburu gomendagarri batzuen aurkezpenak egiten dizkiegu irakasleei eta horiekin landu daitezkeen estrategia eta gaiak erakutsi.

Dinamizatzailea eskolara joaten denean, lehendabizi eskaintzen dioten ikasgela egokitzen saiatzen da, irakaleentzako eserlekuak antolatu eta aurkeztuko dituen liburuen zerrendak partaide guztientzako prestatu eta liburu berri guztiak mahai gain batean atontzen ditu.

Lehenik eta behin bere burua aurkeztu eta Galtzagorri Haur eta Gazte Literatura Elkartearen aurkezpen txiki bat egiten du. Ondoren, liburuen aukeraketa nola egiten den ere azaltzen du: adituz eta interesdun ez osatutako mintegi batek egiten du aurrelana. Aukeraketa egiterako orduan, irizpide nagusia ume eta gazteei literatura ona eskaintzea izaten da.

Sarrerak sarrera, edozein unetan partaideek galderaren bat badute bota dezaten animatzen ditu.

Liburuak fisikoki erakutsi eta argialetxea aipatzen du lehendabizi. Liburuz liburu aurrenik sinopsi txiki bat egiten die eta tartean aipagarriak diren iruzkinak gehitzen joaten da.

Hona 2016-2017. Ikasturtean aurkeztutako liburuen zerrenda:

Aurkezpenetarako bibliografia:

Haur Hezkuntza:

1.- Munstroek ere pixa egiten dute ohean. Pello Añorga PAMIELA-KALANDRAKA

Izenburuak garbi iradokitzen du formatu handiko liburu honen gai nagusia: gaueko pixagurek haurrengan eragiten dituzten kezkak. Istorioa narrazio ilustratu moduan eraikita dago, orrialde osoa hartzen duten irudiekin, eta euren ondoan azaltzen diren testu pasarte nahiko laburrekin.

Kontaktaren protagonista neskato bat da, pozik oheratzen dena, harik eta egun batean komun zuloari beldur hartzen dion, arratoi baten erruz. Neskatoa bere panpinekin oheratzen da, eta hain zuzen bere panpinen laguntzarekin arituko da arratoiaren aurka borrokan, azken garaipena iritsi arte.

Istoria fantasiaren eremuan garatzen da batik bat, zeinetan panpinek bizitza propioa duten, eta gertaeren “dramatizazioa” errealitatearen interpretazio interesatu bat baino ez den; hau honela da, ziurrenik, egileek nahi izan dutelako erretratatu hurrek errealitatea aztertzeko darabilten fantasia, eta bide batez fantasiaren erabilera honek lor ditzaken emaitzak.

2.- katutxo eta oporrak. *Joel Franz* PAMIELA

“Katutxo” pertsonaiaren hirugarren ipuina da, aurretik, “Katutxo eta baloia” eta “Katutxo eta elurra” izan ziren eta denetan “Katutxo” izango dugu protagonista bere lagun animaliatxo koadrilarekin batera. Liburua tapa gogorrekoa da, eta irudiek liburuan asko okupatzen badute ere, istorioari ez diote mami gehiegirik eskaintzen. Katutxoren 3. abentura honetan, oporrak aitzakia hartuta, familia ereduak eta klase sozialak ditu hizpide.

3.- Burua galdu zuen jirafa. *Bertol Arrieta* ELKAR

Ipuin fantastikoa da, adiskidetasuna eta errepikapenean oinarritutako jolas narratiboa ardatz hartzen dituena. Tonua umoretsua da, ganberroa.

Ipuinaren izenburuak alegoria bat (ikusezinak diren ideiak irudiz azaltzeko ahalegina) dirudien arren, “burua galdu” esaerak jolas narratiborako bidea zabaltzen du, baina ipuin honetan ez du maitemintzearen ondorioez hausnartzen, ezta, oro har, “burua galdu” esaeraz ere.

Behin batean, jirafa maitemindu zen, eta burua galdu zuen. Lehoi magoak lagundu nahi izan zion, baina jirafaren burua jarri ordez beste animalien buruak jarri zizkion. Azkenean lortu zuen jirafarena ipintzea, baina bekoz gora ipini zion, alderantziz. Jateko ezindua gelditu zenez, horri ere irtenbidea bilatu zion lehoiak. Igelak guztia ikusi zuen, eta ederki pasa zuen.

Ilustrazioek bi orrialdeak betetzen dituzte, eta testua barruan txertatuta agertzen da; kolore argiaren gainean hizkia ongi irakurtzen da. Pertsonaia nagusia nabarmentzen da silueta lodi batez, paisaiako elementuak berriz, siluetarik gabeak dira. Afrikako koloreak eta paisaia islatu nahi izan dira. Ilustrazioak testua aberasten du.

4.- Kaka putza. *Stephanie Blake* DENONARTEAN

Trama handiegirik ez duen liburua ematen badu ere, umeen artean hain eraginkorra den gai eskatologikoa amu bezala hartu, eta istorio ganberro bat kontaktzen zaigu, non, haurrak limiteen konkista, eta helduari kontrajarritako bere nortasuna adieraziko duen. Haurrek helduengandik berezi, autoritateari desafiatu eta beraien burua eraikitzen ari diren garairako liburu paregabea. Bai gaia (kaka kontuak), bai psikologia; limiteak, bihurrikeria, bereizketa eta baita marrazki modua; marra lodi eta kolore bizidun trakets itxurakoa, umeen unibertsora hurbiltzen diren baliabideak izanda, peto-petoan umeentzako ipuina dela adierazten dute, eta hala da, haurren artean arrakasta handia baitu.

5.- Nik ere nahiko nuke mango bat. Miren Juaristi DENONARTEAN

Tapa gogorreko eta tonu baikorreko ipuin honetan familia eredu aniztasuna eta ezberdintasunaren errespetua aldarrikatzen dira.

Protagonistak, Brasilen bizi diren Teandra eta Luisinho izeneko aiton-amona dira. Etxe sotil batean bizi dira. Etxe ondoan mango zuhaitz eder bat dute, eta baita hainbat oilo ere. Oilo hauek arrautzak erruten dituzte, eta berotu ondoren txitak izaten. Oilo batek, ordea, ez du arrautzarik errutea lortzen. Zer egin? Irtenbide originala aurkituko dute.

Ilustrazioak egokitzen dira testura. Irudiak handiak eta bitxiak dira. Asko markatzen dute errealitatea.

6.- Azazkalo. Margarita del Mazo TXALAPARTA

Album ilustratu honek Azazkalo munstroaren istorioa kontatzen digu. Oinarrizko garbitasun arauetaz hitz egiten zaigu, eta baita ere beldurrari aurre egin beharraz. Tonua dibertigarria da eta aldi berean, hezitzailea. Liburuko azkeneko esaldiak argi bidaltzen digu mezua: "Ez ahaztu noizean behin komeni dela ispiluaren aurrean jartzea".

Azazkalok (sekulan azazkalak moztu ez dituen aztiak) haurrak harrapatzea du gustuko. Behin Zuriñe neskatilaren etxean sartu zen, berekin eramateko asmotan, baina Zuriñek ez zion beldurrik, eta halako itxurarekin Azazkalo baino Aztimandoa zela esan zion. Itxura traketsa zuela ikusarazi, zalantza piztu, eta etxera alde egin zuen bere burua ispiluan begiratzera. Azkenean, neskak arrazoia duela onartuko du, eta handik aurrera bere itxuraz arduratzen hasiko da, neskatila lagun duela.

Ilustrazioak handiak dira, orrialde osoak hartzen dituztenak, koloretsuak, dibertigarriak eta detailez beteak. Teknika ezberdinak nahasten dira; collage, akuarela, margoak...Lasai begiratzekoak.

7.- Hartzatxoa, Jirafa zaharra eta harrizko pareta. Susanna Isern ED. LA FRAGATINA

Album ilustratu honetan adiskidetasuna eta bizitzarekiko jarrera baikorra dira gai nagusiak. Tonu baikorrean, zoo batean triste bizi den hartz kume baten istorioa kontatzen da.

Hartz txikia triste bizi da zooan, eta jirafa lagunak egunak alaitzen dizkio, beretzat garaiegiak diren zoo hornez kanpora zer ikusten duen kontatuta. Berezi, inguruan bizi diren hartzak zertan aritzen diren entzutea atsegin du.

Egun batean jirafa gaixotu egiten da eta zootik eramaten dute. Hartzarentzat handia da jirafa lagunaren hutsunea, eta batez ere haren kontuak. Denborarekin, hartzak zoo hornez bestalde ikusteko tamaina hartzen du. Baina begira jartzen denean ez du ikusten jirafak deskribatzen zion hartzez betetako lurralde eder hura, baizik eta hiri ilun eta itsusi bat. Kostata, orduan ulertzen du jirafa lagunak errukizko gezurrak kontatzen zizkiola, itxaropena sortuz, ilusioa galdu ez zezan. Hortik gutxira, zooraren eramanen duten elefante txikiari gauza bera egitea erabakitzen du.

Ilustrazioak nahiko sinpleak dira, baina koloretsuak.

8.- Koloretako munstroa *Anna Llenas* FLAMBOYANT

Album ilustratu bat da. Tonu hezitzaile eta umoretsuan idatzita dago. Istoriarik ez dago, soilik emozioen deskribapen bat, koloreen laguntzarekin sailkatuta. Koloretako munstroa nahastuta esnatu da, ez daki zer gertatzen zaion. Lagunak irakatsiko dio kolore bakoitzak esanahi bat duela, eta emozio baten adierazle dela. Ilustrazioak garrantzitsuak dira liburuan. Collage erara eginak daude. Orrialde osoak betetzen dituzte. Kolore eta formen jokoak emozioen azalpenetan sakontzeko erabiltzen da.

Lehen Hezkuntzako LEHEN ZIKLOA:

9.- Balea. *Federico Fernandez* KALANDRAKA

Balea akordeoi formako album ilustratu mutua da. Bertan itsas hondoa igerian dabilen burdinazko balea dirudien urpeko-ontzi bat agertzen zaigu. Alde batean tramankulua kanpotik ikusten dugu, arrainez eta itsasoko animaliaz inguratuta, eta beste aldean, barrutik ikusten dugu. Barruan ehunka pertsonen bizimodua ikusten dugu. Hasieran esan dugun bezala bi ilustrazio erraldoiek osatzen dute lan hau, detaile anitzez hornituak eta honek guztiek mikro istorioak sortzeko baliabide ezin hobea sortzen dute.

10.- Barruko Leihoa. *Pello Añorga* PAMIELA

Liburu hau zazpi ataletan zatitutako 55 poemak osatzen dute. Proposamen laburrak dira, errepikapenean eta hitz jokoetan oinarrituta daude, eta, horregatik erritmo handikoak dira.

Gizakiari eta naturari buruz hitz egiten dute. Atal bakoitza gai bati eskainita dago, eta izenbururik ez badute ere, honelatsu multzoka daitezke: (I) neguko solstizioa, (II) Udaberriko lorealdia, (III) Hazien garaia, (IV) Loreak eta espiritualitatea, (V) Airekoak, (VI) Arnasa, (VII), eta (VIII) Hitzaz-hizketa.

Gaien hurrenkerari men eginez, ohartzen gara ibilbide bat proposatzen zaiola irakurleari, barrutik kanpora, lurretik airera, ea berriz ere barrura datorrena arnastutako airearen bidez.

Irudiak minimalistak dira, poetikoak baita ere, esanguratsuak: ekialdeko margogintza gogorarazten dute teknikan (tinta), baina estetikaren irakurketa pertsonala eskaintzen dutenak.

11.- Begiak itxita hegan. *Leire Arano* IBAIZABAL

Ipuin ilustratu honek norbere burua ezagutzeaz hitz egiten digu. Poz ematen diguten gauzen alde ari da, nahiz eta gizarte onarpenik ez lortu. Tonua baikorra da, hezitzailea ere bai.

Protagonistak nortasun arazoak ditu, ez daki nor den eta amets gaiztoak izaten ditu. Itxura oso zaindua duten nesken gauzekin egiten du amets, hala nola gona luzeekin, eraztunekin eta azkazalak pintatzearekin.

Ilustrazioak ederki egokitzen dira testura. Orri osoa hartzen dute. Gorputza nabarmen erakusten dute, irudiak oso gertutik jarrita.

12.- Bihotza lo daukat, eta zer? *Alaine Agirre* ELKAR

Apatiari buruzko ipuin errealista da, tonu malenkoniatsu xamarrean kontatua. Martinak bihotza lo dauka eta ametsetan aurkitzen du gozatzeko modua. Amak egoera hau aldatu nahian etxez aldatzea erabakitzen du, etxe argitsuago batera. Neskatoak etxe berrian mutiko bat ezagutzen du, eta bihotza esnatu egiten zaio.

Bi orrialdetik bat betetzen du ilustrazioak. Testuaren tonuarekin bat dator, eta aberastu egiten du. Ur margoekin egindako kolore apaleko marrazkiak ditu.

13.- Errimen kutxa. *Bilduma. Carmen Gil* EREIN

- 1.- *Gure gorputza: buruan hasi, buruan buka.*
- 2.- *Ezagutu itzazu animaliak, izaki miragarriak!*
- 3.- *Zerua pozarren, haize, euri edo elurra egin arren*
- 4.- *Lurrez, itsasoz edo airez, bidaiari beti pozez!*
- 5.- *Lurra zoragarria da, ur-jauzi batetik basamortura!*
- 6.- *Handitzean -hau poza!- zein izango dut lanbidea?*
- 7.- *Zenbat zuhaitz! Zenbat landare! Mendi aldean dut maite!*
- 8.- *Begiratu arretaz munduari: asmakizunak ugari!*
- 9.- *Ez dago geldirik hiria. Joan-etorrian mundu guztia!*
- 10.- *Bai jostagarria kirola! Aukera ezazu zure kutunena!*

Hitz neurtuan eta errimekin idatzitako "Errimen kutxa" bilduma irakurketan hastapeneko pauso autonomoak emateko baliabideak aurkitzen dira. Titulu bakoitzean gai bati heltzen zaio, izenburuak garbi iradokitzen duen moduan. Ilustrazio koloretsuek testua ulertzen laguntzen dute, eta jolas txiki bat proposatzen dute, irakurleak ilustrazioen detaileetan errepara dezan.

Lehen Hezkuntzako BIGARREN ZIKLOA:

14.- Arbola eskuzabala. *Shel Silverstein* PAMIELA-KALANDRAKA

Album ilustratu honek maitasuna eta eskuzabaltasuna hartzen ditu gai nagusi gisara, ikuspuntu hunkigarri batetik: mugarik gabe ematea. Tonu neutro batean kontatzen zaigu istorioa, tarteka kutsu ironikoa duen arren. Gaiak, eta kontaktaren garapen eta erresoluzioak hausnarketa bultzatzen dute.

Ipuin baten eran arbola eta mutiko baten arteko harremana kontatzen da, mutikoaren bizitza guztia irauten duena, haurtzaroan hasi eta zahartzaroraino. Adiskidetasun harremana jolasean eta elkarri konpainia egiten eraikitzen da. Hazi ahala, ordea, harremana aldatu egiten da. Mutikoaren bisitak gutxitu egiten dira, eta zerbaiten beharra duenean soilik gertatzen dira. Hala ere, arbolak daukan guztia ematen dio mutikoari, natural-natural, ematearen plazer hutsez, nahiz eta bere izatea galbidean jarri...

Ilustrazioak bi orrialdeak hartzen dituzten tinta beltzeko marra xumeez eginak daude. Irudiek testuarekin bat eginda jarduten dute, informazioa osatzen edota azpimarratzen, bai eta tarteka informazio berria eskaintzen ere.

15.-Handitan. Bilduma. *Liesbet Slegers* IBAIZABAL

Sukaldaria. Futbolaria. Arkeologoa. Albaitaria. Astronauta. Lasterketa pilotua. Dantzaria. Sendagilea

Hainbat lanbidetara hurbilpena egiteko bilduma da. Esaterako, hirugarrenean arkeologoaren lanbidea azaltzen da, hala nola, janzkera, erabiltzen dituzten erremintak, lan prozedurak... erakutsiz.

Bukaeran jarduera batzuk eskaintzen ditu liburuak.

Ilustrazioak oso sinpleak dira, kolore bizikoak ,eskuineko orrialde osoak hartzen dituzte eta testua dagoen ezkerreko orrialdeetan ere detaileren bat dutelarik. Liesbet Slegers-en estiloa berehala ezagutzen da.

16.- Bi txori. *Dipacho* TTARTTALO

Album ilustratu mutua da, hitzik gabekoa. Gure gizartearen kontsumismoaz parabola grafikoa egiten da, protagonista diren bi txorien patuaren eta gure gizartearen artean, kritika zorrotza darion ikuspuntu batekin. Tonua umoretsua da, ironikoa.

Zuhaitz bat dago sei adar nagusirekin, eta adaska askorekin; loreak ere baditu. Bi txori daude adar banatan, harmonia ederrean naturarekin. Halako batean txoriak objektuak ekartzen hasten dira, eta arbolaren adarretan ipintzen. Gero eta traste gehiago pilatzen dira, eta, eutsi ezinda, arbolaren adarrak hautsi egiten dira. Amaieran bi txoriak hasierako posizioan daude, baina oraingoan enborraren kontra, hautsitako adar-erroetan orekari nola hala eusten.

17.- Biziaren historia. *Stéphanie Ledu* TTARTTALO

Dibulgazio liburu honekin biziaren sorrera eta eboluzioa era erakargarrian kontatu nahi da, gizakia ardatz hartuta. Lehenengo orrialdetik idazleak irakurlea gonbidatzen du istorioan parte har dezan. Elkarrizketa bidez gaiarekiko ikusmina pizten saiatuko da, denboran atzetik aurrera, gure planetaren hasierako garaietatik gaurdainoko bidaia eginez.

Biziaren pasarte garrantzitsuenak kontatzen zaizkigu: Unibertsoaren sorrera; Lur planeta eta lehenengo narrastiak; kontinenteen eraldaketa; dinosauroen desagerpena artekoak; ugaztunen sorrera eta eboluzioa; primateak eta hominidoak; eta, azkenik, giza asmakizun garrantzitsuenak, gaur egunera arte.

Ilustrazio lana ezinbestekoa da. Orrialde guztietan agertzen dira, testuaz bezainbateko garrantzia baitute datuak eta informazioa agertzeko.

18.- Tango iritsita hiru dira. *Justin Richardson & Peter Parnell* PAMIELA-KALANDRAKA

Azal gogorreko album ilustratu etzana da. Benetako gertakarietan oinarrituta dagoen narrazio didaktikoa da, zoologia eta sexualitate azalpenak ematen dituena, erdibana. Gertaeraren beraren izaeragatik interes berezikoak dira: guraso homosexualak eta adopzioa. Zooko pinguinoen etxean pinguino bikote berezia bizi zen: Roy eta Silo. Biak arrak izanik, ezin zuten arrautzarik errun. Habia egiten zuten, baina ez zeukaten arrautzarik txitatzeke.

Zooko arduradunek aukera bat ematea pentsatu zuen, bi arrautza errun eta beti bietako bat galtzen zuten bikote bat zegoela ikusirik. Esperimentua ongi atera zen. Arrautza primeran zaindu zuten Roy eta Silok, eta txita hazteko ere

ongi moldatu ziren. Ordudanik bi aita dituen txita bat bizi da New York-eko Central Park-eko zooan: Tango.

Ilustrazio adierazgarriak dira, biologia azalpenetarako beharrezkoa den egiantzekotasunean oinarrituta, baina haurrentzako liburuetan ohikoa izaten den humanizazio ukituarekin. Batik bat deskribapen-funtzioa betetzen dute.

Lehen Hezkuntzako HIRUGARREN ZIKLOA:

19.- Beldurraren gaztelua. Bilduma. *Hainbat egile* MEZULARI

Terrore leuneko (!) abenturazko nobela bilduma da. Beldurra sortzea helburu izanik ere, umore kutsua darie hainbat pasarteri. Protagonistek erronka gainditzeko indarrak batzen dituzte.

Obra hauek Italiako hainbat idazle ospetsuren ekarpenekin egina dago, eta enkarguzko lanak direla aurreikus badaiteke ere, nahiko lan “freskoak” atera zaizkie.

Ilustrazioak apaingarri hutsak dira, eta ez dute narrazioa aberasten.

20.- Alizia herrialde miresgarrian. *Lewis Carroll* PAMIELA

Klasiko honen 150. urteurrenekoa dela eta, Pamielak lan bikaina egin du euskal irakurleek liburu ezagun honen bertsiio ederra izan dezagun. Aipatzekoa bestalde, Manu Lopez Gasenik egindako lana; aurreko batean argialetxe eta itzultzaile berberak egindako lanean ez bezala, oraingo honetan beste bide bat hartu du Lopez Gasenik. Berak dioen bezala: “Alizia pertsonaia bikaina da, liburua zelebrequeriaz josita dago...baina hain da ulergaitza tarteka! Hori dela eta, itzulpen hau funtzionalagoa bihurtzen saiatu naiz...”

Abenturazko ipuin fantastikoa da. Gogoeta, grina, pertsonen arteko harremanak, obediencia... dira gaiak. Tonua umoretsua da, komikoa sarritan.

Alizia izeneko neskatila bat da protagonista, eta, lo-kuluxka egin bitartean, amets fantastikoa eta bitxia bizitzen du, zentzumenez betetakoa. Berak oso erreal ikusten du eta sentitzen du gertatzen ari zaiona; liburu bukaera arte irakurleok ere erabat sinistuta gaude benetan egin duela jauzi lurralde miresgarri batera. Lurralde horretako gizartean, pertsonak eta animaliak elkarrekin bizi dira; untxi zuria, ikarak hartutako Sagua, Martxoko Erbia, Errege eta Erregina, Txerrikumea eta Dukesa, Grifoa eta haren karrankak, Sugandila, Sasidortoka...

Ilustrazioak orain 150 urtekoak dira. Zoragarriak dira, bai koloretan, bai zuri-beltzean. Oso ondo laguntzen diote istorio fantastikoari.

21.- Kanpoaldeko munduan. *Maurice Sendak* PAMIELA

Album ilustratu honetan fantasiako abentura ipuin bat kontatzen zaigu. Heldutasuna, beldurra eta erantzukizuna jorratzen dira, tonu oniriko batean.

Aida, neskato protagonista, neba txikia zaintzeaz arduratzen da. Egun batez mamarroek neba bahitzen dute, eta bere bila irteten da, aurkitzen duen arte. Jazarpena leku sinbolikoetatik barrena gertatzen da, eta ametsen logika (falta)ren arabera eraikitzen dira kontaketaen elementu guztiak, pertsonaietatik hasi, eta ekintzetaraino. Esaterako, mamarroak koba batean

aurkitzen ditu, eta Aidaren neba bezalako umetxoak direla ohartzen da. Jarraian Aidak tronpeta jotzen du, mamarroak dantzan aritzen dira, eta erreka dantzari bateko zirimola bihurtzen dira.

Ilustrazioak eskultorikoak dira, prerrafaelista itxurakoak. Orrialde osoa betetzen dute. Testuak baino harago doaz, detailez josita, iradokitzaileak eta esanguratsuak, tentsio nabarmenekoak dira.

22.- Super heroiak eta orburu gorrotagarriak. Sébastien Pérez IBAIZABAL

Superheroien ohitura eta ezaugarrien katalogoa.

Zortzi atal ditu. Bertan, ez da bakarrik superheroien historia adierazten, superheroia izateko pausoen azalpena ere bai. Hain zuzen liburuaren azken asmoa irakurlea superheroi izatera animatzea da.

Testu mota asko daude, formatu desberdinetan ea tipografia aukera zabalarekin.

Ilustrazioak garrantzitsuak dira liburuan. Retro kutsu nabarmena eransten diote obrari, kolore biziak erabiltzen dira eta asko baldintzatzen dute testuen harrera. Hainbat orrialde 3D-ko betaurrekoekin ikusteko dira.

Liburu amaieran aurkibidea eta 3D-n ikusteko betaurrekoak daude.

23.- Akim ihesi. Claude K. Dubois TTARTTALO

Album eran sortutako Ipuin errealista da, eta bere gaia gaur egun hainbeste entzuten dugun "gerra". Tonua samina da. Ilustrazioak asko laguntzen dio gerra gaia eta tonu samin hori lotzen.

Akimen istorioa kontatzen zaigu: bere etxearen gainean bonbak botatzen dituzte, eta bera etxe eta familiarik gabe geratzen da. Familia bilatzen saiatzen da, baina ez du ezagunik ikusten. Halako batean emakume batek eskutik heltzen dio. Hiru egun pasa ondoren soldaduak etortzen dira, eta berarekin eramaten dute. Lanean jartzen dute, zerbitzatzen. Handik korrika alde egiten du, bidean iheslari talde bat aurkitu, eta hauekin geratzen da. Aurrerago laguntza humanitarioa daraman kamioi bat aurkitzen dute, eta iheslarietako eremu batera eramaten dituzte. Han seguru sentitzen da, baina etxeak falta zaizkio. Egun batean, kanpalekuko arduradunak bere ama aurkitu dutela esaten diote, eta ipuinak Akim amarekin besarkatuta bukatzen du.

24.- 100 kontu ondo ezagutzeko zientzia. Hainbat egile TTARTTALO

Zientziari buruzko ezagutza liburu da. Testu eta infografiak konbinatuta ehun lezio magistral ematen dira, harrigarriki xaloak diren azalpenekin: unibertsoaren etengabeko handitzea, argi urtea, eboluzioaren teoria, fisika newtondarra, eta beste hamaika kontu korapilatsu, edonork ulertzeko eran.

Ikaragarritzko lana da. Edizio datuetan argitzen dutenez, 19 lagunen ahaleginak sortutako obra da. Txapela kentzeko modukoa. Baina bere muga azkartasunean dauka: gaur ikasi eta bihar ahaztuko dugun azalpen heterogeneo andana huts bat bihur liteke, ikasketa pausatuago eta sakonagoetarako zubi gisa erabili ezean.

25.- Xola eta lapurra. *Bernardo Atxaga* EREIN

Ikerketa eta misterioa oinarri dituen Xola pertsonaiaren bosgarren abentura. Beti bezala tonu umoretsuan agertzen zaizkigu zakur egozentrikoaren kezka eta balentriak.

Gogo jauna eta Xola bizi diren eraikineko hainbat bizitzatan gertatutako lapurretak dira istorioaren abiapuntua. Administratzaileak eta hiriko poliziaren detektibeak bizilagunen bilera zaratatsuak Xolaren loa eteten du. Hortik aurrera, Xola ikerlari-lanetan hasiko da eraikineko lapurra nor den argitzeko eta detektibe-andreari laguntzeko.

Ilustrazioak informazio gehigarria gaineratzen du. Oso adierazgarriak eta umoretsuak dira.